

Gure komunikazio kanalak sare sozialak izango dira: Instagram, Twitter, Tik Tok eta Facebook. Hauen bidez gure produktuari buruzko informazio pixka bat jasoko dute bezero potentzialak eta informazio gehiago lortzeko gure perfiletan egongo diren link-an sakatu eta gure web orrialdera bideratuko ditugu. Bertan bi aukera daude: produktua bertan erosi edo gurekin bilera bat antolatu azken zalantzak argitzeko eta produktua erosteko. Amaitzeko, distribuzioa zuzena izango da eta kamioien bidez gure fabrikatik eroslea eskatutako portura eramango dugu.